

Literatura →

Pusketa bat argitan

Iratxe Esnaola

Josu Penades (Bermeo, 1962) gaur artean bi eleberririk argitaratu bazen ere, *Etxea* (2006, Alberdania) eta *Jantzi beltz bi* (2009, Alberdania), ez nuen eza gutzen. Nire kalterako saiakera eta haur zein gazte literatura lan du izan dituen egilearen ez ezagutza. Istorio bizi eta sendoa idatzi du bi pertsonaiari jarraituz, eta beren bitartez hiru belaunaldiren koadroa eskaini. Hasiera puntu bat 1936ko gerra da, Galo Mendizabal protagonista duela. Atxilotu eta Iruñeko San Kristobal gotorleku presondegian sartzen dute, erresistentzia edo jarduera politikorekin zerikusirik ez badu ere. Bigarren istorioa aita ezagutu ez zuen Inas semearen kontakizuna da. Madrilan hasten da 1960ko frankismoan, Kimika ikasketak burutu berri dituen unean. Nola amaitu du berritar txiro baten semeak ingurukoek lor ezinako pribilegioez gozatzan? Hirugarren pertsonan ari den narratzaile pazientziadunak ondo eusten dio irakurlearen jakin-minari, batetik, pertsonaien barne gogoetara katiga-

ztea lortuz, eta, bestetik, semearen aitagianako distantziari kezka gisa eutsiz.

Denboran saltoak eginez bisitatzen ditugu bi narrazio bideak, kapitulu bakoitzak txanda utziz besteari, orainetik iraganera. Nobela historiko gisa saltzearen lotsarik ez luke. Garai historikoa markatzen duten ezaugarriak zaindu ditu. Izan landa giroan (60. hamarkadako euskaldun bizkaitarren bizimodua), izan historiari begiratu botatzeko baliogari den Iruñean (San Kristobal gotorlekuaren historia, 1972ko Iruñeko Topaketak eta abar). Baina zaindu duena, batez ere, pertsonaien nolakoa da. Protagonistak ez ditu iraultza zaletasunak ezaugarritzen. Inas semearen profila, tentagarri izan daitekeen joerari eutsiz, ez da heroiaarena. Ez du gure herriko ibilbide politikoan aztarnarik utzi. Institutuko kimika irakaslea da, senarra eta aita. Apenas agertzen du iritzi politikorik, ez bada diktadura amaitutakoan, indarkeria anitzek eragin gogoeta bakan batzuk azaltzean. Paradoxa, aitak erregimeneko indarren gehiegikeriak, tortura eta heriotza eza-

gutu zituenean? Irabazleen harrotasuna eta galtzaileen lotsak badu zerikusirik, gerra galdutakoan hitzak seme-alabei ez iragartean.


Bestalde, narratzaileak segi-

zioa egiten dion emakume protagonista bakarrak duen rola, ama eta emaztearena da, eta ohoreagatik familiak nola arbuatua duen erakusten zaigu. Hori salbu, gizon protagonisten inguruan zertzeladaka agertzen dira emakumeak, beren bahetatik paseak. Koadroaren osagarri horien falta suma dezake irakurleak, baina egileak aita-semeen ikuspuntua hautatu duenez, haien bitartez narratzen du. Gainerakoan, hainbeste urte korritzen dituen, azpigi asko ageri dira. Irakaskuntzaren irizpide eta ikasleen profilarren aldaketaz ohartzen gara. Urteetan Euskal Herriko gatazkari begiratzeko modua nola mudatu den ageri da. Galdera bat egiten da: iraganarekin bakeak egin al ditzakegu? Amaiera anitzen arteko dialogoak posible ikusten dituenarena irudituz zait. Euskal Herriko elkarbizitzan fedea duen norbaitea. Abentura luzean sartzeko ausardia izan du Josu Penadesek, eta, koadroaren atal zenbait ikus-teke geratu badira ere, literaturak egin dezakeena egin duela uste dut: pusketa bat hautatu eta hura ahalik artetsuen argiztatu.



'ILEAK URETAN'

■ Egilea: Josu Penades.
■ Argitaletxea: Alberdania.



'BASQUE CULINARY. HOZKAILUKO DOSSIERRA'

■ Egilea: Luis Haranburu Altuna.
■ Argitaletxea: Hiria.

Donostiako Miramar Jauregian protokolozko afari bat ospatzen da. Jaki eta edari bikainen artean, ordea, goi mailako guardia zibil baten heriotza suertatzen da. Heriotza kasuala edo hilke-ta? Hori da ironiaz eta malenkoni-az beteriko eleberririk honen haria eta mataza.



'KARMEI', 277. ZENBAKIA

■ Argitaratzailea: Euskal Herriko Karmeldarrak.

Friedrich Hölderlin (1779-1843) poeta alemaniarren hainbat poema dakartza euskaraturik *Karmel* berriak, Luis Arostegiren itzulpenean. Horrez gain, Miren Agur Meaberen eta Francisco Javier Arrieta Idiakenez olerki berriak ere badakartza, Joseba Intxausti eta Roman Garmendiaren artikuluekin batera.



'ADIMENAREN MUGETAN'

■ Egilea: Miroslav Krleža.
■ Itzultzailea: Hasier Agirre.
■ Argitaletxea: Erroteta.

XX. mendeko kroaziar idazlerik oparoenaren, Miroslav Krležaren (1893-1981), eleberririk bat itzuli du Hasier Agirrek. Adimenaren mugetan (*Na rubu pameti* jatorrizkoan) du izenburua, eta 1938an idatzia da. Gizon baten aurkako jazarpena da *Adimenaren mugetan* eleberraren muina.

↓ Haur eta gazte literatura

Frantisek Abravanel Klee

Imanol Mercero

Liburu honen protagonista Frantisek Abravanel Klee da; Franti, lagunentzat. Orain dela hamar urte agertu zen Euskal Letretan izen bereko obran, *Franti*, eta oraintsu berragertu da, haren herriko plaza garrantzitsuenaren izena dakarren alean, Nuvolari plazan.

Itxuraz aldatua dator; ez dira alferrik bi marrazkilari pasatu ordudunik: hastapeneko Mitxelena hura, egungo Olariaga hau.

Olariagaren Franti ximurra da, burusoila eta bufandaduna, oso urruti Mitxelenak 2002an egin zuen gizon bizarzuri ilekizkur hartatik —kapela ere galdu du bidean gizajoak—; hala ere, pertsonaia bera da, Matteomigliako funtzionarioirik onena —besterik ba al da?—, Jurasek erai-kinke bere bulegotik herritarren arazoak konpontzeko beti prest dagoen behargin arduratsua.

Funtsean denak igual jarraitzen du Matteomiglian. Aita Ri-

pellinok meza telefono kabinan ematen du, oraindik ere. Kanpus eskaleak ez du utzi bere bizilekua, banketzeko ate birakaria. Frantiren bulegoa eskaeraz betetzen jarraitzen dute herritarrek; kalez kale ibiltzeko zabuak nahi dituzte; aurrekoan Anjelok esperantza galdu zuen gisan, oraingoa iparra galdu du norbaitek, eta abar.

Aurreko liburua eta hau ordea desberdinak dira puntu batean: hartan, unibertso berezi honen aurkezpena egiten liburu osoa ematen zuen, eta ez zegoen «ger-taerarik». Oraingoa, aldiz, gertaera bat dago; agian, ez Frantiren eguneroko harrigarria narratzaioaren ardatzetik mugiaraziko duena, baina bai fokuan jartzen dena: postariak Nuvolari plazako postontzian patera bat topatu du hamabi pertsonarekin. Hamabi naufrago, «denak beltzak».

Eta horrek nahitaez baldintzatzen du liburuaren ildo. Baldintzatu egiten du bestela darion magikotasun xaloa, gure egunerokoarekin loturarik ez duen

mundu baten irudia. Hain zuzen, egunerokotasunaren alderdi larrienari begira jartzera behartzen gaituelako.

Istorioak, berez, bazekarren kritika sozial fina, umorez bezaibat ironiaz jositako kritika, ezen nola ulertu bestela funtzionario saiatuaren figura, nola ulertu jendeak galten dituen esperantza edota logika, nola uler-



'NUVOLARI PLAZA'

■ Egilea: Karlos Linazasoro.
■ Ilustratzailea: Antton Olariaga.
■ Argitaletxea: Erein.

tu alferrik esaten diren hitzekin antolatzen duten birziklapen negozioa, nola ulertu, azken finean, Matteomiglia osoa, gure gizartearekin oposizioan ez bada? Eta, halere, kritika hori dena azpitik zihuan, lizentzia literario onargarria zen beste alde batera begiratu nahi zuen irakurlearentzat. Baina beltzez betetako patera bati ezin zaio izkin egin...

Esanak esan, nire ustez, magia ez da galtzen, Matteomigliak jarraitzen du izaten 8 urteko aurre-rako irakurleek ezagutu beharreko mundu bat. Eta niri, bederen, hirugarren alea irakurtzeko irrika piztu zait bigarren hau bukatu orduko. Gainera, jakiteko gaude zer gertatu den herriko gainerako postontzietan, jakiteko gaude non enplegatuko dituzten hamabi etorri berriak. Eta galdera gehiago, *Franti* liburitik hona argitu ez direnak. Zeren, Urzidil jaunak irabazi ote zuen igeriketa dominarik olimpiadetan? Meritua bai baitzuen, Plaza Nagusian edota Parte Zaharrean entrenatzen baitzen, urik gabe, noski.